



EKINTZEN PROGRAMAZIOA 2018ko urtarrila, otsaila eta martxoa

EKOETXEA TXINGUDI Txingudiko paduretako informazio zentroa



ekoetxea
Txingudi



INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA
ETA ETXEBIZITZA SALA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
PLANIFICACION TERRITORIAL Y VIVIENDA

URTARRILA, OTSAILA ETA MARTXOKO PROGRAMAZIOA



IPUINKONTALARI MUSIKATUA “SAXOFONISTARENA”

Larunbata urtarrilak 20 / 12:00 – 13:00

Adina: 3-8 urte

Ipuin kontalaria: Xirrikituen Jostunek

Tokia: Ekoetxea Txingudi

Hizkuntza: Euskara

EZ da beharrezkoa izen-ematea

Irati eta Amaia txikitatik lagunak dira eta saxofoiaren bitartez komunikatzen dira. Gaur, ingurumenari buruzko istorioak kontatuko dizkigute musikaren bitartez. Beraien istorioak ezagutu nahi dituzu? Ipuinekin gozatzeko prest?



ZERTARAKO BALIO DU EKOARTZAINTZAK?

Otsaila 3, larunbata / 11:00 – 13:00

Publiko guztiari irekita

Tokia: Ekoetxea Txingudi

Beharrezkoa da izen-ematea

Ekoartzaintzak hezegunearen kudeaketan ematen dituen onurak eta honen esperientzia ezagutzeko bisitaldi gidatua Plaiaundiko Parke Ekologikotik. Bisitan zehar, jarduera zuzentzen duen artzainak lagunduko digu, proiektuaren xehetasunak azalduz.

URTARRILA, OTSAILA ETA MARTXOKO PROGRAMAZIOA



Argazkia: Félix Calvo

JARDUNALDI TEKNIKOA “HEZEGUNEAK MUNDU MAILAKO ALDAKETAREN AURREAN”

*Otsailak 22, osteguna / 10:00 – 14:00
Tokia: Ekoetxea Txingudi
Beharrezkoa da izen-ematea*

Teknikariei, kudeatzaileei eta profesionali zuzendutako jardunaldi teknikoak. Bertan, gaurko egoera eta hezeguneen papera aztertuko da mundu mailako aldaketatik ondorioztatutako fenomenoaren aurrean.

“KOLOREKO NATURA” FONAMAD 2017 ERAKUSKETA

*Martxoaren 5etik apirilaren 30ra
Publiko guztiari irekita
Tokia: Ekoetxea Txingudi*

30 argazkiko erakusketa honek, FONAMAD-bazkideek aukeratuta 300 hautagai baino gehiagoren artean, ikuste-ibilbidea proposatzen du naturako koloreen espektru guztietatik zehar. Kolorerik gabe ez da ezer ulertzen naturan...




URTARRILA, OTSAILA ETA MARTXOKO PROGRAMAZIOA



HEGAZTI BEHAKETA

Martxoak 4, igandea / 10:00 – 12:00
Gidari ornitologoa: Gorka Gorospe
Publiko guztiari irekita
*Topaketa lekua: Camping “Faro de Higer”-
en sarreran*
Beharrezkoa da izen-ematea

Itsas hegazti-behaketaz gozatzera gonbidatzen zaituztegu Higer-eko lurmuturretik, Hondarribia. Zorte pixka batekin, gidari on batekin eta prismatiko eta teleskopioez lagunduta, zangak, gabaia, altzidoak, kaioak, antxetak, txenadak, marikoiak, ahatebeltzak... ikusteko aukera izango dugu.



NATURA ARGAZKIGINTZAN PROZESATZEN HASTEKO IKASTAROA

Martxoak 17, larunbata / 10:00 – 13:00
Irakasle aditua: Iñigo Izquierdo
Tokia: Ekoetxea Txingudi
Beharrezkoa da izen-ematea

Ikastaro honek, argazkigintza digitaleko munduan eta beren prozesatuan hasteko beharrezko erremintak eta ezagupenak eman nahi ditu erabiltzaileei. Ikastaroak 9 orduko iraupena du hiru larunbatetan banatuta.